



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko abenduaren 18a

110. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).
- Foru Lege proiektua, iruzur fiskalaren aurkako tributu-neurriei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Elikagaien Hondakinen Erabilerari buruzkoa. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako ekintzaileei eta lan autonomoari laguntzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (7. or.).
- Foru Lege proposamena, bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako bekak enbargaezin deklaratzeko dituenak. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (7. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, unibertsitateko eta unibertsitateaz besteko irakaskuntza publikoa dela-eta Hezkuntza Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak egin (8. or.).
- Jabeldura, ospakizun instituzionalen arloko politika orokorrari buruzkoa eta Nafarroaren Eguneko ekitaldi-programari buruzkoa, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak egin (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat formula bultzatzen dituzten errealitatean erraztuko dutenak finantza-entitateek aurreratzea zaharberritze obra bateko zati diruz lagundua. Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten exekuzio hipotekarioko prozeduretan etxegabetzeak saihesteko. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azaroaren 2ko 1505/2012 Errege Dekretuak hondamen eremu deklaraturako herriei dagozkien laguntzak arin ditzan. Maite Esporrín Las Heras andre-ak aurkeztu du (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurri guztiak diseina eta gara ditzan eskola-porrota eta eskola-abandona gutxitzeko eta pixkanaka desagerrarazteko. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Legebiltzarrari aurkez diezaion kultur mezenasgoari buruzko foru lege proiektu bat. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2013ko abenduaren 31 baino lehen araudia egoki dezan gaur egun Europar Batasunean indarrean dagoen enpresa txiki eta ertainen definizioaren eta sailkapenaren arabera. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da pertsona fisikoak salbuets ditzan tasa judizialak ordaintzeko betebeharretik. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ziurta dezan Nafarroako gaztediaren elkarteararen bideragarritasun ekonomikoa. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Cascanteko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikorako eraikin berriaren obrak has ditzan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (19. or.).
- Adierazpen Instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatzeko baitu Alderdi Popularrak proposaturako hezkuntza-erreforma. Eledunen Batzarrak onetsia (20. or.).
- Adierazpen instituzionala, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 48. urteurrenaren ospakizuna dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (21. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak baieztatzen baitu mobilizazioa gobernuen politikak baldintzatzeko tresna baliodun eta beharrezkoa dela. Eledunen Batzarrak onetsia (21. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Tuterako Laneko Arbitraje eta Bateragarritasun Bulegoa berrirekitzeari buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (22. or.).
- Galdera, gazteek enplegu egonkor eta kalitatezkoa eskura dezaten errazteko Nafarroako Gobernuak egiten ditueni buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (22. or.).
- Galdera, gazteek etxebizitza duin bat eta neurrizko prezioan eskura dezaten errazteko Nafarroako Gobernuak hartu dituen neurriei buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (23. or.).
- Galdera, urriaren 19ko eta 20ko euriteek kaltetutako udalei eta bizilagunei eta eskura ditzaketan laguntzen xehetasunei buruzkoa, Koldo Amezketa Díaz jaunak egina (24. or.).
- Galdera, jakitekoa nola gauzatu den oinarritzko osasun laguntzako talde medikoarekiko eta erizaintza-taldearekiko komunikazioa telefono-estaldurarik ez duen itzalguneren batean daudenean, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (25. or.).
- Galdera, jakitekoa zergatik ez zen interpretatu Espainiako ereserkia Nafarroaren Eguna ospatzeko ekitaldietan, Ana Beltrán Villalba andreak egina (25. or.).
- Galdera, jakitekoa zergatik Hezkuntza Departamentuak Hezkuntza Ikuskaritza Zerbitzuko lanpostu hutsak bete dituen berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publikitate printzipioei men egin gabe, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (26. or.).
- Galdera, C.A. Osasunak Nafarroako Ogasunarekin duen zorra ordaintzeari buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (26. or.).
- Galdera, San Juan de Dios Ospitaleko obrak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak emandako abalari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (27. or.).
- Galdera, San Juan de Dios Ospitaleko jarduera kirurgikoa gutxitzeari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (28. or.).
- Galdera, jakitekoa zer jarduketa egin dituen eta egingen dituen Nafarroako Gobernuak konpontze aldera Pirinio aldean eta Zangozan izandako uholdeen ondorioz hainbat azpiegituretan gertatutako kalteak, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (28. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak aurreikusita al daukan berrordainketa-formuletan eta zerbitzuen pribatizazioan sakontzea, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (29. or.).

- Galdera, “Abiadura handiko trenbidearen Nafarroako korridorea eraikitzea” kontusailaren kargura Osasun Departamentuko zenbait kontusail handitzearen erabakiari buruzkoa, Juan Carlos Longás García jaunak egina (30. or.).
- Galdera, jakitekoa zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak larrialdikoa ez den osasun-garraioaren doakotasuna ziurtatzeko, Bakartxo Ruiz Jaso andrearek egina (30. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- 3/2012 Legegintzako Foru Dekretua, azaroaren 21ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (32. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2013ko urtarrilaren 15eko eguerdiko hamabiak**

arte luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2012ko azaroaren 16ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, iruzur fiskalaren aurkako tributu-neurriei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Iruzur fiskalaren aurkako tributu-neurriei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2013ko urtarrilaren 15eko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua

2012ko azaroaren 16ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Elikagaien Hondakinen Erabilerari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak Elikagaien Hondakinen Erabilerari buruzko Foru Lege propo-samena aurkeztu du, eta irakurketa bakarreko pro-zeduraz izapidetu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERA-BAKIA:

1. Agintzea Elikagaien Hondakinen Erabilerari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Par-lamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. arti-kuluan ezarritako ondorioetarako.

3. Foru Lege proposamena irakurketa bakarre-ko prozeduraz izapidetzea.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egu-naren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Elikagaien Hondakinen Erabilerari buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Europar Batzordeak argitara emandako azter-lan baten arabera, Europar Batasuneko kide diren 27 estatuetako elikagaien hondakinen produkzioa urtero ia 89 milioi tonara iristen da. Horrek esan nahi du herritar bakoitzeko 179 kilo sortzen direla, kontuan izan gabe nekazaritza jatorriko elikagaien

hondakinak –produkzio prozesuan sortzen dire-nak– edo itsasora botatzen diren arrain-bazterki-nak. Neurririk hartzen ez bada, kantitatea 126 milioi tonara irits liteke 2020an. Hondakinen zati handi bat zor zaio elikagaien iraungipen-daten edo gomendatutako kontsumo-daten kudeaketa oke-rrari; izan ere, jotzen da botatzen diren elikagaien % 20 baztertzen dela iraungipen data dela-eta dauden zalantzengatik. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren txosten baten ara-bera, elikagaien banaketarako kate gehien-gehie-nek (% 78) iraungitzeko zorian dauden elikagaiak botatzen dituzte, eta kate horien % 20k baizik ez diote ematen elikagai banku bati edo GKE bati, aprobetxa ditzaten.

Europako Parlamentuak 2012ko urtarrilaren 19an erabakia hartu zuen, elikagaien alferrik galt-zea saihesteko moduari buruz: Europar Batasune-an elikadura-katearen efizientzia hobetzeko estra-tegiak. Erabaki horretan, besteak beste, proposatu du 2014a “elikagaiak alferrik galtzearen aurkako europar urtea” izenda dadila.

Errealitate horrek kontraste dramatikoak egiten du Europar Batasunean 79 milioi pertsona pobre-ziaren atalasetik behera bizitzearekin. Hau da, herritarren % 15 baino gehiagok bizitokia duten herrialdeko batez besteko errentaren % 60tik beherako errenta jasotzen dute; eta horietatik, 16 milioik ongintza-erakundeen elikadura-laguntza jasotzen dute. Halaber, Nafarroan milaka pertso-nak pobrezia eta gizarte-bazterketa pairatzen dituzte, egungo krisialdi sozial eta ekonomikoak areagotuak. Pobretzeak jada ez du soilik eragiten tradizionalki estatistika hori oinarritzen zuten sek-toretan; izan ere, egunero mauka-mauka harra-patzen ditu milaka pertsona, krisialdiak eta politika publiko egokien ezak gizarte bazterketara bultza-tutakoak, zeinei botere publikoek biziraupenerako gutxieneko maila bat ez baitiete bermatzen. Cári-tasek berriki ohartarazi du 120.000 pertsona, Nafarroako biztanleen % 18, pobrezia arriskuan daudela.

Elikagaien bankuek eta beste gizarte ekimen batzuek funtsezko lana egiten dute, baina ez dira iristen arazo osoari aurre egitera. Beharrezkoa da botere publikoek neurriak har ditzatela herritarrengan kontsumo-ohitura arrazoizkoak sustatzeko, baita elikagaien banaketa-kateetan jokabide egokiak bultzatzeko ere, saiheste aldera elikagaiek zaborretan buka dezatela, hondakin bihurturik. Horri dagokionez, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak, 15. artikuluan, ezartzen du administrazio publikoek, dagozkien eskumenen esparruetan, 2013ko abenduaren 12a baino lehen hondakinen prebentziarako programak onetsi beharko dituztela, haien bidez 2020rako sortutako hondakinen pisua % 10 gutxitzeko, 2010ean sortutakoen pisuarekin alderatuta. Programa horietan, besteak beste, berariaz aurreikusiko da elikagaien hondakinen sorrerari aurre egin dakiola, hain zuzen ere elikagaiak alferrik gal daitezten saihestera eta kontsumo arduratsua sustatzera bideratutako neurrien bitartez; esate baterako: saltokiekiko akordioak, iraungitako elikagaiak ahal den guztian gutxitzeko; kontsumitzaileentzako jarraibideak ezartzea; jatetxeak eta jantokia duten jarduerak egitea soberako elikagaiak aprobetxatzeko; egoera onean dauden soberakinak aprobetxatzeko bideak sortzea gizarte ekimenean bitartez, herri jantokien bitartez, elikagaien bankuen bitartez, eta abar. Bidezkoa da, halaber, Nafarroako antolamendu juridikoan helburu horiek berak sustatzera bideratutako xedapenak sartzeari.

1. artikulua.

1. Nafarroako Merkataritzari buruzko uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legea aldatzen da, ondoko idatz-zatietan adierazitakoei dagokienez:

2. 16. artikuluari j) letra berria gehitzea. Honako testua izanen du:

“Jarduerak sortutako hondakinen kudeaketa egokia, hondakin horiek gutxitzea eta, bereziki, elikagaien hondakinak aprobetxatzera bideratutako neurriekin”.

3. 21. artikuluko 3. idatz-zatiari e) bis letra berria gehituko zaio, ondoko edukiarekin: “Jarduerak sortutako hondakinak kudeatzeko plana, haiek

gutxitzea eta zuzen tratatzera bideratua. Elikagai-hondakinik sortuz gero, haiek aprobetxatzeko plana, elikagaien bankuekiko nahiz antzeko beste-lako erakundeekiko akordioen bitartez.”

4. 39. bis artikulua gehituko da. Honako testua izanen du:

“39. bis artikulua. Hondakinen kudeaketa. Hondakinen arloan aplikatzeko den araudiaren arabera, txikizkako saltzaileek behar diren neurriak hartu beharko dituzte beren jarduerak sortutako hondakinak ahal den guztian gutxitzeko eta haiei tratamendu egokia emateko. Bereziki, elikagaien hondakinen kasuan, aprobetxagarriak direnak bereizi eta elikagaien bankuei eta antzeko beste erakunde batzuei eman beharko dizkiete”.

2. artikulua.

1. Nafarroako Gobernuak, 2013ko abenduaren 12a baino lehen, elikagaien soberakinak banatzeari buruzko jokabide egokiaren kode bat landuko du, ukitutako eragile guztien parte-hartzearekin, honako helburu hauekin:

a) Kontsumorako gai diren baina merkaturatzeko gai ez diren elikagaien soberakinak gutxitzeko prozesuen efizientzia hobetzea.

b) Neurriak ezartzea produktu horien soberakinak gizarte erakundeetara eskuratzeko eta premia handienak dituzten pertsonen artean banatzeko.

c) Kate osoa kontzientziazten laguntzea, ekoizleengandik hasi eta kontsumitzaileenganaino, kontsumo arduratsua egiteko beharrari buruz eta elikagaien eralgiketa gutxitzei buruz.

2. Nafarroako Gobernuak, tokiko gizarte zerbitzuekin koordinatuta, behar diren neurriak ezarriko ditu baliabiderik ez duten pertsona eta familia guztiei beren garapen normalerako behar adinako oinarrizko elikadura bermatzeko, kasua bada aurreko idatz-zatian aipatutako soberakinetatik heldu diren elikagaien banaketarako zerbitzuen bitartez.

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako ekintzaileei eta lan autonomoari laguntzeari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako ekintzaileei eta lan autonomoari laguntzeari buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2013ko urtarrilaren 15eko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu

foru lege proposamena 2012ko irailaren 26ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako bekak enbargaezin deklaratzeko dituenak.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako bekak enbargaezin deklaratzeko dituen Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2013ko urtarrilaren 15eko eguerdiko hamabiak**

arte luzatzea. Aipatu foru lege proposamena 2012ko irailaren 25eko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, unibertsitateko eta unibertsitateaz besteko irakaskuntza publikoa dela-eta Hezkuntza Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, unibertsitateko eta unibertsitateaz besteko irakaskuntza publikoa dela-eta Hezkuntza Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko parlamentari José Miguel Nuinek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Hezkuntzako kontseilariarentzako jabeldura hau aurkeztu du, Eledunen Batzarrean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Jabeldura, unibertsitateko nahiz unibertsitatez kanpoko irakaskuntza publikoari dagokionez Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak daraman politika orokorrari buruzkoa.

Nafarroako Gobernuak arian-arian ari da gutxitzen, bereziki 2009az geroztik, hezkuntza publiko inbertsioa, murrizketak aldiro eginez haren finantzaketan. Egoera horren ondorioz, arriskuan da, esate baterako, unibertsitate publikoaren bidegarritasun ekonomikoa, eta unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoen jarduteko ahalmena murriztuz doa, eta lurralde desoreka areagotzen.

Irakaskuntzako sistema publikoak Nafarroako hezkuntza sistemaren ardatza izan behar du; hortaz, behar adina baliabide izan behar ditu honakoen bermerako bere eginkizuna betetzeko: eskola adineko populazio osoarentzat legeak nahitaezkoztat ezartzen dituen hezkuntza edukiak transmititzea; ikasleei prestakuntza integrala ematea, gizarteratzeko eta laneratzeko; gure gizartearen garapen zientifiko eta teknologikorako prestakuntza zientifiko eta humanistikoa ematea; eta herritar guztien aukera berdintasuna hezkuntza eskuratzeari dagokionez, diskriminazio oro ekidinez, dela jaiotzearengatik, jaioterriarengatik, bizilekuarengatik, sexuarengatik, erlijioarengatik nahiz beste edozein arrazoiarengatik.

Hori horrela izan dadin, Nafarroako Gobernuak apustu garbi eta irmoa egin behar du irakaskuntza publikoaren alde, berorri garatzearen alde eta jabetza publikoko ikastetxeak sustatzearen alde.

Iruñean, 2012ko azaroaren 26an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Jabeldura, ospakizun instituzionalen arloko politika orokorrari buruzkoa eta Nafarroaren Eguneko ekitaldi-programari buruzkoa.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, ospakizun instituzionalen arloko politika orokorrari buruzkoa eta Nafarroaren Eguneko ekitaldi-programari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, ospakizun instituzionalei eta, zehazki, Nafarroako Eguna ospatzeko ekitaldien egitarauari buruzko politika orokorra dela eta.

Nafarroako Parlamentuak onetsitako irailaren 27ko 18/1985 Foru Legeak Nafarroaren Eguna deklaratu zuen abenduaren 3a, Frantzisko Xabierkoaren ospakizuna. Lege horrek xedatzen zuenez, behar ziren neurriak hartu behar zituen Gobernuak, ospakizun hori urtero ospatzeko eta kasuko ekitaldiak antolatuz. Legearen zioen azalpenean jasotzen ziren horretarako arrazoiak: "Erkidego guztien ohitura eta erkidego horietako herritarren borondatea da jaiegun bat edukitzea, aukera eman duena, proiektu historiko komun baten batasuna eta nortasuna sinbolizatzeaz gain, lurraldearen nortasuna, haren kulturarena eta herritarrena, modu seinalatuan goresteko. Tradizio jarauntsiarekiko errespetuari eta norberaren iragana herrien definizioaren oinarritzko faktore gisa onartzeari zor zaie ondare komunean sustraitutako egunak eta motiboak instituzionalizatzea, halako moduan non gizartearen bizitzaren sostengu diren adostasuna, elkartasuna eta senidetasun-kontzientzia sendotzen lagunduko baitute". Testuinguru horretan, beste ekitaldi batzuen artean, abenduaren 3an Nafarroako Urrezko Domina eman ohi da ospakizunaren ardatz den ekitaldi instituzional solemne batean.

Legea onetsi osteko urteetan, Nafarroako Gobernuak foru legean ezarritakoa gauzatu zuen; halatan, kirol eta gazteria arloko sariak sortu zituen, beste jarduketa batzuen artean, eta muntako kultur ekitaldiak antolatu zituen erkidego osoan zehar. Egitarau bat taxutuz joan zen hartara, laster sustraiak bota zituena. 2013rako aurreikusitako ekitaldien egitaraua aztertuz gero, ondokoak dituela ikusten ahal da: hasiera, jauregiaren bisitak, gazte jaialdia, ekitaldi instituzionalak, abesbatzak eta musika-bandak, eta bestelako jarduerak. Aurreko hiru hamarkadetako egitarauen kalko bat, ia-ia.

Halere, egitaraua beti bertsua izan bada ere, egitarauaren hartzaile den gizartea nabarmen aldatu da. Bere biztanleen dedikazioak, herritarren ohitura eta usadioek, egoera ekonomiko, sozial eta kulturalak ez dute antzik Nafarroa trantsiziotik atera berrikoekin, azkar joan baita modernizazio eta sekularizazio prozesua.

Aldiro errepikatu den ekitaldi-egitaraua –zehazki, 2013koa– egokia al da gaurko Nafarroarako? Egitarau horrek zertan laguntzen du proiektu historiko komun baten inguruko batasuna eta nortasuna sinbolizatzeke? Aukera ematen al du lurraldearen nortasuna, haren kulturarena eta herritarrena, modu seinalatuan goresteke? Gure gizarteko bizitzaren sostengu diren adostasuna, elkartasuna eta senidetasun-kontzientzia sendotzen al ditu? Eta, batez ere, egungo taxuerak laguntzen al du nafarrek haiena balitz bezala senti dezaten ala, aitzitik, gobernatzaren duen eliteari soilik interesatzen zaion zerbait balitz bezala ikus dezaten balio du?

Nafarroako Gobernuari dagokio hartu beharreko neurriak hartzea ospakizuna urtero egin dadin eta kasuko ekitaldiak antola daitezen, baina ikusita iritzi-inkesta guztien arabera gero eta alde handiagoa dagoela agintarien eta herritarren artean, badirudi komeni dela Nafarroako Parlamentuak hausnar dezan ospakizunaren edukiari buruz –izan ere, Parlamentua da herritarren borondatearen benetako ordezkaria–, ospakizunaren egungo taxuera eta edukiak ebaluatze aldera eta, kasu bada, taxuera eta eduki horiek egungo herritarren beharrezko eta itxaropenei egokitze aldera.

Horiek horrela:

Socialistas de Navarra parlamentu-taldea Nafarroako Gobernuari jabeltzen zaio, ospakizun

instituzionalei eta, zehazki, Nafarroaren Eguna ospatzeko ekitaldien egitarauari buruzko politika orokorra dela eta.

Iruñean, 2012ko abenduaren 4an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat formula bultzatzen, errealitatean erraztuko dutenak finantza-entitateek aurreratzea zaharberitze obra bateko zati diruz lagundua.

MANU AYERDI OLAIZOLA ETA PATXI LEUZA GARCÍA JAUNEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita hainbat formula bultzatzen, errealitatean erraztuko dutenak finantza-entitateek aurreratzea zaharberitze obra bateko zati diruz lagundua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Manu Ayerdi eta Patxi Leuzak, foru parlamentari diren aldetik eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Ekonomia eta Ogasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Iragan martxoan, Nafarroako Gobernuak etxebizitzaren arloan egiten dituen neurri babesgarrien eguneratzea proposatzen duen Foru Dekretuaren zirriborroari buruzko lehendabiziko informazioak eman zizkigun kontseilari ohi Astiz jaunak. Iragan irailean, Sustapeneko kontseilari berriak, Zarraliqui jaunak, zuzentzen duen departamentua arlo horretan aztertzen ari den neurriei buruz informatu zuen Nafarroako Parlamentuan, bai etxebizitza

babestuen sustapenari dagokionez, bai zaharberitzeak bultzatzeari dagokionez, kontuan hartu behar baita jaitsi egin dela etxebizitza erosteko eskaria.

Etxebizitzak zaharberitzeari buruzko Foru Dekretuaren zirriborro horren edukia denaz bezainbatean, errealitatea da, egungo krisi ekonomikoaren eraginez, etxebizitzaren jabeek kasu askotan ezin izaten dutela zaharberitze obrarik egin, nahiz eta obra egiteko asmoa izan eta Nafarroako Gobernuaren kasuko diru-laguntza eman izanaren ebazpena eduki eta obren zati diruz ez lagunduari aurre egiteko gaitasuna izan –dela funts berekien bidez, dela besteren funtsen bidez–; hain zuzen ere, ezin dutelako finantzatu diru-laguntza, obra egin ostean eta egindako lanak kontratistari ordaindu ostean ordaintzen dena. Finantza-entitateak berregituratze aldera abian den prozesutik heldu diren arrazoiez harago –arrazoi horiek ere eragina dute, inondik ere–, badirudi zailtasun operatibo nagusia izan daitekeela finantza-entitateek izan dezaketen ziurgabetasuna; hau da, ea aurreikusitako obrak azkenean egingen diren ala ez eta, hortaz, ea Nafarroako Gobernuak diru-laguntza ordainduko duen ala ez.

Gure ustez, ordea, jabea obren zati diruz ez lagundua ordaintzeko edo finantzatzeko moduan baldin badago, finantza entitateekiko formulak ezar litezke zati diruz lagundua finantzatzeko, balizko ziurgabetasunak uxatzeko eta obrei ekin ahal izateko.

Gainera, ezin dugu ahantzi ezen, egungo krisi-testu inguruan, lanekua bereziki eskatzen duen jarduera bat dela zaharberitzea; hartara, eragina izan dezake eraikuntzaren sektoreko langabeziatasan, non eta atzerakada bereziki nabarmena izan duen sektore batean.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hainbat formula bultza ditzan, errealitatean erraztuko dutenak finantza-entitateek

aurreratzea zaharberritze obra bateko zati diruz lagundua.

Iruñean, 2012ko azaroaren 15ean

Foru parlamentariak: Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten exekuzio hipotekarioko prozeduretan etxegabetzeak saihesteko.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira zenbait neurri har ditzaten exekuzio hipotekarioko prozeduretan etxegabetzeak saihesteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Azken hilabeteotan, Legebiltzarrean eztabaidatzen ari dira hipoteka-betearazpenak pairatu dituzten edota pairatzeko arriskuan dauden pertsonentzako elkartasun-neurriak, eta mozioak ere onetsi dira, Espainiako Gobernua premiatzeko lege-araudietan zenbait aldaketa egin ditzan.

Estatuko araudiaren aldaketa horiek atzeratu egin daitezke denboran, Estatua gobernatzen duen alderdiaren borondate politiko eta ideologiko faltagatik. Izan ere, ikusi da alderdi horrek eginiko

erreforma ahulak ez direla nahikoak zordun hipotekarioen arazoa konpontzeko, eta, horretaz gain, neurri horiek argi uzten dute zeintzuk diren Gobernuaren lehentasunak herritar guztien etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeari dagokionez.

Horregatik, Nafarroako erakundeek lehenengo lerroan jarri behar dugu herritarrak gehiegikerietatik babeste aldera.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du agin dezan hipoteka-betearazpenak berehala etetea, horiek jabeak etxebizitzarik gabe eta etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko baliabiderik gabe uztea dakarten guztietan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala geldiaraz ditzan gertatzen ari daitezkeen babes ofizialeko edozein modalitatetako etxebizitzaren etxegabetzeak. Era berean, premiatzen du balia ditzan lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak babes ofizialeko etxebizitzetan, hirugarren batek hipoteka-betearazpen prozedura bat abian jartzen duenean.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hitzarmen bat sina dezan edonolako harreman finantzarioa duen banku eta aurrezki kutxekin, entitate horiek etxegabetzeak berehala etetea helburuarekin.

Hitzarmen horretan honako neurriok jasoko dira:

– Orain arte gauzatutako etxegabetzeak berri-kustea eta, ondorioz, etxebizitza itzultzea etxerik edota beste etxe bat eskuratzeko baliabiderik ez duten pertsona edo familia etxegabetuei.

– Entitate finantzarioek konpromisoa hartzea, hipoteka-betearazpen prozedura bat abian jarri aurretik Nasuvinsa sozietate publikoaren esku utz dezaten ordaindu ezin den ohiko etxebizitza, etxebizitza horien erabilera eta okupazioa kudea dezan alokairu sozialaren bidez.

Hala, ukituek ez dute etxetik atera beharko eta alokairu sozial bat ordaintzeko konpromisoa hartuko dute (alokairu horren kopurua familiaren erosalmenaren arabera ezarritako litzateke, eta ez luke ezoin kasutan izan beharko familiaren diru-sarrerren % 15 baino handiagoa).

– Arrazoi objektiboak desagertu eta familiak lehengo egoerara itzulitakoan, alokairua ordaintzeari utzi eta berriro hipoteka ordaintzen hasiko lirarteke (betiere, etxebizitzarako eskubidearen edukitzaileak hala nahi izanez gero).

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du harreman ekonomikoak bertan behera utz ditzan aurreko idatz-zatian jasotako hitzarmena sinatzen ez duten eta etxegabetzeak gauzatzen dituzten entitate finantzarioekin.

Iruñean, 2012ko azaroaren 27an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da azaroaren 2ko 1505/2012 Errege Dekretuak hondamen eremu deklaraturako herriei dagozkien laguntzak arin ditzan.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen baita azaroaren 2ko 1505/2012 Errege Dekretuak hondamen eremu deklaraturako herriei dagozkien laguntzak arin ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko.

Iragan urriaren 19an eta 20an izandako uholdeen ondorioz, kalte larriak izan zituzten ondoko

herriotan: Burgin, Bidankozen, Erronkarin, Uztarozen, Izaban, Otsagabian, Itzaltzun, Gorzan, Ezkarozen, Espartza-Zaraitzun, Sartzen, Galoze, Nabaskozen, Gazteluberrin, Erromantzatuan, Agoitzen, Irunberrin, Zangozan, Xabierren eta Esan. Hori dela eta, beharrezkoa izan zen zenbait jarduketa egitea urak hartzeko eremuei, ur hornidurako zatiei eta horiek babesteko beharrezkoak diren harri-lubetei, ur hornidurari eta auzo eta pistetarako sarbideei dagokienez, garbiketa-lanak eta garrantzi gutxiagoko kontu batzuez gain. Hori guztia ahaztu gabe lurzati partikularretan izandako kalteak.

Iragan den denbora kontuan hartuta eta uholdeen ondorioz deklaraturako hondamendia dela eta dagozkien laguntzak arintze aldera, honako erabaki proposamena aurkeztu dugu, dagokion batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernu premiatzen du azaroaren 2ko 1505/2012 Errege Dekretuak hondamen eremu deklaraturako herriei dagozkien laguntzak arin ditzan, beharrezkoak diren lanak egin ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du gainerako lanen ordaintzea finantzatu dezan, obra guztiak osatu arte, toki entitateek bizi duten egoera ekonomikoa dela-eta.

Iruñean, 2012ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurri guztiak diseina eta gara ditzan eskola-porrota eta eskola-abandonua gutxitzeko eta pixkanaka desagerrarazteko.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita behar diren neurri guztiak diseina eta gara ditzan eskola-porrota eta eskola-abandonua gutxitzeko eta pixkanaka desagerrarazteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

José Miguel Nuin Morenok, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduarekin bat, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Eskola-uztearen eta-porrotaren indizea handia da Nafarroan, Estatuko batezbestekoa baino txikiagoa izanda ere. Nafarroako 18 eta 20 urte bitarteko populazioaren % 12k ez du lortu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua. Pentsatzekoa da pertsona horiek ez dituztela lortu derrigorrezko eskola-curriculumak ezartzen dituen gutxieneko helburuak eta, horrenbestez, ez dituztela gizartetzeko eta laneratzeko ez eta goi mailako ikasketak jarraitzeko oinarritzotzat eta beharrezkotzat jotzen diren ezaguerak. Gizarte garatu batek ezin du onartu eskola-porrota, zeina bereziki larria baita irakaskuntzaren derrigorrezko mailetan.

Jada Haur eta Lehen Hezkuntzan, ikasleen zati batek ez ditu garatzen bere gaitasunak bere ahalmenaren arabera, eta Bigarren Hezkuntzan, berriz, egoera hori are larriagoa da. Bestalde, ikasle askok ikasketak uzten dituzte lan merkaturako sarbidea oso mugatua eta lan merkatuaren gaitasun-eskakizunak handiagoak diren honetan.

Ikasleak hezkuntza sistematik baztertuta geratzen badira derrigorrezko etapetan, edo Lanbide Heziketako eta Batxilergoko ikasketak behin hasita uzten badituzte, hori ez da gertatzen, oro har, baliabide ekonomikoen faltagatik edo gaitasun faltagatik.

Eskola porrotaren arrazoiak askotarikoak dira, hala nola curriculumen adostasun falta, edukien hautapen eta sekuentziario desegokia, eraginkorrak ez diren metodoak, material eta baliabide nahikorik eza..., pertsona bakoitzari dagozkion arrazoiak gain; esaterako, arreta defizita. Arrazoi horiek guztiak aurreikus daitezke, eta ikasketak antola daitezke –eta antolatu behar dira– ikasle guztiek arrakasta lortze aldera.

Agerikoa da eskola porrotak lotura estua duela gizarte-bazterketarekin, halako moduz non sistematik baztertutako ikasleek gero eta zailtasun handiagoak baitituzte gizartean kide aktibo gisa txertatzeko.

Bestalde, bistakoa da egitura eta curriculumak egokiak izanda eta baliabideak nahikoak izanez gero, ez lukeela ez eskola-porrotik ez -uzte goiztiarrik izan beharko.

Horrenbestez, beharrezkoa da prebentzio-neurriak diseinatzea, hala nola aniztasunaren trataera egokia, eskola-curriculumerako sarbide guztiak optimizatuz; baliabide publiko egokiak jartzea, eskola-adineko pertsonen eta hezkuntza-sistemaren beharrei egokituta; edo, esaterako, eskolatzea goiztiarra prebentzio-neuri gisa ezartzea, Nafarroan bi urteko ikasleen % 47,2 bakarrik baitago eskolatua.

Testuinguru horretan, Hezkuntza Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoak berreskuratzen ditu, konponbide gisa, Aznarren garaian Hezkuntzaren Kalitateari buruzko Lege Organikoak bultzatzen zituen ibilbide bereiztaileak, ikasleak lehenbailehen hautatu eta sailkatze aldera, hezkuntza-enbor komun bat izateko aukera kenduz. Ibilbide horiek eta sistemaren zurruntasunak ez dute ahalbidetuko eskola-uztea eta -porrota txikitzen; aldiz, lagunduko dute aukera berdintasuna eta hezkuntza-konpentsazioa kentzen. Neurri horiek ez dira eskola-porrotaren aurkakoak, ezarri nahi den hezkuntza-sisteman “porrot eginen luketen” ikasleen aurkakoak baizik.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren neurri guztiak diseinatu eta abian jar ditzan eskola-porrota eta -uztea pixkanaka txikitu eta desagerrarazte aldera eta, horretarako, desberdintasunak konpentsatzeko eta aniztasunari erantzuteko politikak bultzatu ditzan, ikasle guztiak eskola-arrakasta lor dezaten, kontuan hartu gabe haien jatorria, sexua, arraza, erlijioa edo egoera soziala.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 0-3 urteko umeentzako eskola sustatu ditzan, eskaera osoari erantzunen dioten ikastetxe publikoen sare baten bidez.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du areagotu dezan ikastetxe publikoetako irakasle kopurua, ikasle guztiei arreta egokia eskaini eta ikasle guztiak eskola-arrakasta izan dezaten.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du % 10 murriztu dezan ikasgelako ikasle kopurua unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-maila guztietan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 4an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Legebiltzarrari aurkez diezaion kultur mezenasgoari buruzko foru lege proiektu bat.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Legebiltzarrari aurkez diezaion kultur mezenasgoari buruzko foru lege proiektu bat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Honen bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kultur mezenasgoari buruzko foru lege proiektu bat pres-ta dezan.

Nafarroak kultur ondare aberatsa du, bere historia luzearen ondorioz. 1940tik 1984ra, kulturaren zaintza eta sustapena Vianako Printzea Erakunde-ari lotura egon zen, eta erakunde horrek lan goresgarria egin zuen, batez ere ondare artistikoaren eremuan. 1984tik aurrera, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren sorrerarekin, arreta nagusiki ondarean jartzen zuen eredu zaharrak pixkanaka bidea eman zion programa zabalago bati, zeinean gero eta garrantzi handiagoa baitzuten museoek, artxi-boen eta liburutegien arloek. Halaber, kultur ekin-tza jarri zen abian eta ezagunak egin diren programak zehaztu ziren, hala nola kultur etxeen sarea, programa berekiak, hirugarrenentzako deialdiak, hitzarmenak edota sortzaileentzako laguntzak.

Lan hori kolore politiko desberdinetako gober-nuek egin zuten, alde nabarmenekin bada ere, eta oposizioak ere bere ekarpena egiten zuen, behin betiko emaitza aberastuz; hori dela eta, kulturaren arloko aurrekontua areagotzen joan zen pixkanaka, bai ehunekoari bai zifra osoei dagokienez.

Gorako bide horrek, zeinak goia jo baitzuen 2008an, beherako joera nabarmena izan du hurrengo urteetan, bereziki 2011tik aurrera. Honako zenbakiek errealitate tamalgarri hori islatzen dute: Nafarroako Gobernuak aurkeztu eta Legebiltzar honek atzera bota zuen 2013rako aurrekontu- en aurreproiektuak 24,9 milioi euro jasotzen zituen kulturarako; hain zuzen, Nafarroako aurrekontua-

ren % 0,73. Gogora ekarri behar da 2000ko aurrekontuak aurrekontu osoaren % 1,5 egiten zuela, eta 1990ekoak % 0,92; horren arabera, egungo kopurua 1980ko hamarkadako lehenbiziko urteetakoaren parekoa da.

Aurrekontuaren bilakaera horrekin batera, eta kulturaren arloko herrialde aurreratuenean eraginaren ondorioz, Espainiako eta Nafarroako legediek mezenasgoaren kontzeptua jaso zuten. Halaxe egin zuen 1985eko Espainiako Ondare Historikoa-ren Legeak, zeinak mezenasgoaren ondoko definizioa ematen baitu: "legean ezarritako entitateen alde eginiko dohain, dohaintza eta ekarpenak". Nafarroako legediak ere jaso zuen aipatu kontzeptua Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legean; hain zuzen, legearen 87, 88, 89 eta 90. artikuluetan printzipio orokorrak zerrendatzen dira, baina ondoren ez da horien lege garapenik izan.

Aldaketak egiteko beharra ahobatezko aldarria da sektorean. Hala ulertu zuen Espainian egun gobernatzen duen alderdiak, eta kultur arloko lehentasunezko jarduera-xede gisa ezarri zuen abenduaren 31 baino lehen kultur mezenasgoari buruzko lege bat igortzea Gorteetara. Hala ere, arduradunek adierazi dutenez, asmo horrek atzerapen nabarmena izanen du. Hasierako aurreikuspena kontuan hartuta, UPNren eta PSNren parlamentu-taldeek ordezteko zuzenketa bat aurkeztu zioten PPren mozioari. Mozioa eta zuzenketa 2012ko martxoaren 6ko Osoko Bilkuran eztabaida-

tu ziren. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen zen sei hilabeteko epean berariazko arau bat presta zezan, modu integralean arautze aldera kultur mezenasgoa. Zuzenketak, berriz, hauxe zioen hitzez hitz: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gorte Nagusiek Mezenasgoaren Legea onesten dutenetik gehienez ere hiru hilabeteko epean Legebiltzar honetara bidal dezan gai hori gure erkidegorako arautuko duen lege proposamen bat".

Kontuan izanda aurrekontuetan izandako jaitziera –azken bi urteetan larriagotu den jaitziera–, bai eta sektoreak aho batez duen iritzia eta Espainiako lege nazionalaren aurkezpenean izaten ari den atzerapena ere, honako erabakia hartzea proposatzen dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2013ko ekainaren 1a baino lehen Kultur Mezenasgoaren Foru Legea aurkez dezan legebiltzarrean.

2. Lege horrek erkidegoaren berezitasunak hartu beharko ditu kontuan eta, horrenbestez, arautu beharko du enpresa handiei edo ekitaldi handiei lotutako mezenasgoa ez ezik, enpresa txiki eta ertainarekin edo partikularrekin lotutakoa, mikromezenasgoaren bitartez edo lortu nahi den helburura iristeko egokientzat jotzen diren formulen bitartez.

Iruñean, 2012ko abenduaren 4an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2013ko abenduaren 31 baino lehen araudia egoki dezan gaur egun Europar Batasunean indarrean dagoen enpresa txiki eta ertainen definizioaren eta sailkapenaren arabera.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2013ko abenduaren 31 baino lehen araudia egoki dezan gaur egun Europar Batasunean indarrean dagoen enpresa txiki eta ertainen definizioaren eta sailkapenaren arabera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen Europar Batasunean indarrean dagoen enpresa txiki eta ertainen sailkapenera egoki dezan Nafarroako araudia.

2005eko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean enpresa txiki eta ertainen sailkapen berria, Europar Batasunak 2003/361/CE Gomendioaren bidez egina. Sailkapen horrek hiru maila ezartzen ditu –mikroenpresak, enpresa txikiak eta enpresa ertainak–, eta hiru aldagai ezartzen ditu horiek identifikatzeko: langile kopurua, negozioen urteko bolumena eta urteko balantzea.

Halatan, Europako Batzordearen arabera, mikroenpresen, enpresa txikien eta enpresa ertai-

nen kategorian sartzeko bete beharreko baldintzak dira: enpresan 250 pertsonak baino gutxiagok lan egitea eta negozioen urteko bolumena 50 milioi euro baino handiagoa ez izatea edo urteko balantze orokorra 43 milioi euro baino handiagoa ez izatea.

Europako Batzordearen sailkapen berriaren berritasun nagusia mikroenpresaren definizioan datza: 10 langile baino gutxiagoko merkataritza-sozietatea, bere negozioen urteko bolumenean edo urteko balantze orokorrean 2 milioi euro baino gehiago egiten ez duena.

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektua Legebiltzarrean izapidetzean egiaztatu ahal izan denez gero, zenbait kasutan lege proiektuaren edukia eta beste zenbaitetan araudi indardunarena ez dira Bruselak enpresa txiki eta ertainen sailkapenaren arloan ezarritako zuzentarauen araberakoak.

Bestalde, egungo krisi egoeran, non jarduera ekonomikoa bultzatu behar baita eta enplegua sortu, Nafarroako Gobernuak berak sarritan adierazi du jarduera ekizailea sustatu beharra dagoela.

Batasunaren sailkapen berria alde batera utzita, jarduera ekintzaile hori, kasurik gehienetan, mikroenpresen bidez hasten da, eta, hortaz, kontuan hartu beharrekoa da izendapen hori, entitate publikoen jardura administratiboa garatzeko orduan. Enpresa txiki eta ertainen definizio egoki bat lagungarri gertatuko da horien jardura babes-teko neurriak eragingarriagoak izan daitezen.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua honakoak egitera premiatzen du:

1. Nafarroako Gobernuaren araudia Europar Batasunean indarrean dagoen enpresa txiki eta ertainen definiziora eta sailkapenera egoki dezan.

2. Egokitzapen hori 2013ko abenduaren 31 baino lehen buka dezan.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da pertsona fisikoak salbuets ditzan tasa judicialak ordaintzeko betebeharretik.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita pertsona fisikoak salbuets ditzan tasa judicialak ordaintzeko betebeharretik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Honen bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da pertsona fisikoak salbuets ditzan tasa judicialak ordaintzeko betebeharretik.

Iragan azaroaren 22an sartu zen indarrean 10/2012 Legea, azaroaren 20koa, zeinaren bidez arautzen baitira zenbait tasa, Justizia Administrazioaren eta Toxikologiako eta Auzitegiko Zientzien Institutu Nazionalaren esparrukoak.

Parlamentuan arrapaladan izapidetu da, herritarrei ezkutatzeko asmo argiarekin, eta bere edukia argi erakusten du, beste behin ere, Gobernuaren asmoa dela oinarrizko zerbitzu publikoak eraistea, oinarrizko eskubideak egiazki baliatu ahal izatea zalantzan jarri bidenabar.

Auzibideko tasak kentzeari buruzko abenduaren 24ko 25/1986 Legeak auzibideko tasen figura kendu zuen gure ordenamendu juridikotik, ahalbidetze aldera herritar guztiek lortu ahal izatea justizia, zein ere den haien egoera ekonomikoa edo posizio soziala.

Talde Popularrak abiarazitako kontrarreformaren bidez, arau-aldaketa hain errotiko hau gertatu da parlamentu-taldeen izapidetze-prozesuan

zehar bi legebiltzarretan aurkeztu dituzten proposamenetarik bat ere onartu gabe eta talde sozialistaren irizpidearen kontra; izan ere, pertsona fisiko eta juridiko guztietara hedatu da auzibideko tasen ordainketa, bai eta jurisdikzio zibilera, administrazioarekiko auzien jurisdikziora eta jurisdikzio sozialera ere.

Konstituzio Auzitegiak 2012ko otsailaren 16ko 20/2012 epaiaren bidez, deklaratu zuen Konstituzioaren arabera dela abenduaren 30eko 53/2002 Legeak tasa hori berrezarri izana; halere, orobat adierazi zuen "ondorio orokor hori soilik alda liteke baldin eta frogatuko balitz .../... tasen zenbatekoa hain dela handia non praktikan eragozten duten jurisdikzioa baliatu ahal izatea edo kasuren batean modu arrazoitu ezinezkoan oztapatzen duten, 7. zenbakiko oinarri juridikoan adierazitako jurisprudentziako irizpideekin bat. Halere, tasen zenbatekoa ezin da gehiegizkoa izan, kasuan kasuko inguruabar berezien argitan, halako moduan non eragotziko baitu justizia egiazki jasotzeko eskubidearen funtsezko edukia asetzea". Horrenbestez, tasen zenbatekoak ezin du eragotzi edo neurrigabe oztopatu jurisdikzioa eskuragarri izatea.

Orain dela gutxi, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Zuzenbide Prozesaleko katedradun Manuel Cachón Cadenas jaunak ondokoa esan zuen: "Baldin eta legegileak, auzibideko tasak ezarrita nahiz beste modu batez, zailtasunak jartzten baditu herritar batek auzitegietara jo ahal izan dezan babes eske bere eskubideak urratu direlako, horrek esan nahiko luke legegile hori eskubide haiek urratu dituenaren mesedetan ari dela. Horrenbestez, auzibideko tasak egoteak berankortasuna sustatzen du, eta, oro har, betekizunak ez betetzea. Auzibideko tasen sistema batek babes judiciala lortzea oztapatzen duen neurrian, neurri horrek berak mesede egiten die beren betebeharrak betetzen ez dituztenei."

Lege honen xedea –diru-bilketa– gehiegizkoa da, justizia eskuragarri izateko eskubidea mugatzen baitu, eta egiazko babes judiciala lortzea eragozten du.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du hainbat arinen har ditzan hartu beharreko neurriak, pertsona fisikoak salbuetsita

gera daitezen auzibideko tasak ordaindu behar izatetik, eta ziurtatze aldera inork ere ez ikustea mugatuta justizia eskuragarri izateko bere eskubi-dea, auzibideko tasa ordaindu ezin duelako.

Iruñean, 2012ko abenduaren 5ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ziurta dezan Nafarroako gaztediaren elkarte-sarearen bideragarritasun ekonomikoa.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ziurta dezan Nafarroako gaztediaren elkarte-sarearen bideragarritasun ekonomikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Egungo Gazteriaren Zuzendariorde Nagusiaren –lehen Gazteriaren Nafarroako Institutua zenaren– kontusail asko bat-batean jaitsi izanak eta ia-ia desagertu izanak agerian uzten du nora-ezean goazela gazteriaren arloko politikari dagokionez. Zalantzarik gabe, zuzkidura ekonomiko handi batek ez du esan nahi proiektu politikoa ona denik; halatan, egungo murrizketa zor zaio arlo horretan egon ohi den ikuspegi ezari.

Gazteriaren arloko politiketan hobetzen jarraitzeko, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Ziurta dezan Nafarroako gaztediaren elkarte-sarearen bideragarritasun ekonomikoa, eta orobat ziurta dezan sare hori berriztatzea eta dibertsifikatzea, finantzaketa koherente batekin, egungo egoeraren azterketan oinarrituta eta parte-hartzeko aukerak zabalduz.

2. Parlamentu-taldeei Gaztediaren Foru Estrategia helaraz diezaien, azter dezaten eta onetsi aitzin proposamenak egin ditzaten.

3. Abian jar dezan Gazteen Enplegu Plan bat, departamentu guztien parte hartzearekin, estrategietan aurrera egin ahal izateko.

4. Programak susta ditzan Lanbide Heziketaren esparruan, hartan sartzea erraztuz eta eskaintza handituz, beren prestakuntza-etapetan zailtasunen bat izan duten gazteentzat bereziki, beren arlo pertsonal eta profesionalean garatu ahal izateko gaitasun profesionalak lortu ahal izan ditzaten.

5. Sexu hezkuntzako teknikariaren figura berrezar dezan, eta berriz ere bultzatzea dezan departamentuen arteko koordinazioa, esparru honetan programak ezartzeko, estereotipo sexistekin eta generoko indarkeriarekin lotutako auziak azpimarratuz, auzi horiek kezkarriak direlako populazioaren sektore horretan presente egoteagatik.

6. Ezgaitasun egoera pertsonalean dauden gazteei eta egoera ekonomiko eta sozial ahulean dauden gazteei zuzendutako jarduketak bultzatzea, krisi egoerak ez ditzan birritan zigortu egoera ahulenean dauden pertsonak.

Iruñean, 2012ko abenduaren 5ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Cascanteko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikorako eraikin berriaren obrak has ditzan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Cascanteko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikorako eraikin berriaren obrak has ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Cascanteko "Santa Vicenta María" HLHIP da herri horretan Haur eta Lehen Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituen ikastetxe bakarra.

Ikastetxea hartzen duen eraikina 1955ean eraiki zen, eta harrezkero zenbait obra egin dira hura handitzeko. Une honetan, ordea, gabezia handiak ditu, eta hartara komenigarria da eraikin berri bat eraikitzea, modernoagoa eta funtzionalagoa, Cascanten hezkuntzaren kalitatea ziurtatuko duena.

Egun oraindik ere erabiltzen den eraikinaren egoeraren larria ikusita, Foru Gobernuak ikastetxeen 2004-2011 planean sartu zuen Cascanteko ikastetxe berriaren eraikuntza.

2007ko martxoan, udalak ukatu egin zuen lurren lagapena, eta txosten bat eskatu zuen, dagoen eraikina zaharbertzeko aukera aztertzeko. Hezkuntza Departamentuak aukera hori baztertu zuen, bideraezina izateagatik, eta 2008an berriz ere sartu zuen Nafarroa 2012 Planean eraikinaren eraikuntza.

Testuinguru horretan, Hezkuntza Departamentuak 2011ko maiatzean iragarri zuen bere asmoa zela urtea bukatu aurretik hasia ikastetxe berriaren obrak, ikastetxe berria 2012-2013 ikasturtean zerbitzu emateko prest egon zedin.

2011ko abenduaren 28an, obra jada bukatuta zegoela, bost hilabeteko beste atzerapen bat iragarri zen, eta 2012ko maiatzera arte atzeratu zen obraren hasiera, egungo ikastetxearen arazoak, espazioari dagokionez, 2013-2014 ikasturtean gertatuko direla irizita.

2012ko maiatzaren lehen egunetan hasi ziren obrak, hasiera batean aurreikusita zegoen bezala, baina ekainean, garai horretan ezarri zen aurrekontu-blokeoaren ondorioz, obrak gelditu ziren, eta Nafarroako Gobernuak iragarri zuen eraikuntza behin betikoz utzi dela bertan behera.

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordea, parlamentu-talde honek eskatuta, bisitan joan zen urriaren 24an ikastetxearen egungo instalazioetara, eta egiaztatu ahal izan zuen zer-nolako gabeziak dituen ikastetxeak, suteen aurkako babesari buruzko araudiari eta erabilgarritasun eta irisgarritasun arloko segurtasunari dagokienez, bai eta egungo eraikinean gabezia horiek guztiak konpontzeak dituen zailtasunak ere.

Azaldutako horri guztiari gehitu behar zaio familien eta haien ordezkari diren guraso-elkarteen kezka logikoa, ikusten baitute emandako hitza jaten dela eta beren seme-alabek ikasteko dituzten baldintzen gaineko ziurgabetasuna mantentzen dela.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du hainbat azkarren has ditzan Cascanteko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa hartuko duen eraikin berria eraikitzeko obrak, halako moduan non erabilgarri egon ahal izanzen baita 2013-2014 ikasturtearen hasieran.

Iruñean, 2012ko abenduaren 5ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Adierazpen Instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatzan baitu Alderdi Popularrak proposatutako hezkuntza-erreforma.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuaren hezkuntza-erreformaren proposamena errefusatzan du, zeren eta erreforma erregresiboa baita, eta ez baitu laguntzen ikasleei prestakuntza integrala ematen berdintasun baldintzetan, haien jatorria eta egoera sozial, kultural edo ekonomikoa zein den ere.

– Nafarroako Parlamentua hezkuntza merkatu-gai bihurtzearen aurka eta hura pribatizatzaren aurka dago, eta horiexek dira, hain zuzen ere, Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege proposamenak sustatzen dituenak. Halaber, errefusatzan du botere publikoek ekimen pribatuen esku laga ditzatela herritarren hezkuntzari buruzko erabakihartzeak, eta hezkuntza sistema publikoaren aldeko jarrera hartzen du, Espainiako hezkuntza sistemaren ardatza delakoan.

– Nafarroako Parlamentuak Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege proposamena errefusatzan du, zeren eta ez baitauka hezkuntzaren kalitatearen hobekuntza dakarren elementurik, eta ez baitu bideratzen eskola-porrotaren eta -abandonuaren gutxipena. Aitzitik, ikasleen segregazio goiztiar-rako elementuak dakartza, zeren eta malgutasunik gabeko ibilbideen sistema bat eta prestakuntzaren ebaluaziorik egiten ez duten errebalidak ezartzen baititu.

– Nafarroako Parlamentuak Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege proposamena errefusatzan du, ez baitu laguntzen guztiek arrakasta lor dezaten, askatasunez eta izpiritu kritikoz jokatzeko edo

gizartean herritar aktibo gisa integratzeko edo/eta goi mailako ikasketekin jarraitzeko ikasleei behar adina gaitasun emanen liekeen prestakuntza komuna eragotzita.

– Nafarroako Parlamentua Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege proposamenaren aurka dago, zeren eta bideratzen baitu ikasleak segregatzea beren ezaugarri sozioekonomikoen arabera, gaitasun intelektualaren arabera, sexuaren arabera eta erlijioaren arabera, besteak beste. Halaber, derrigorrezko irakaskuntzaren eskola-curriculumean erlijioaren eta haren alternatiba baten irakaskuntza sartzearen aurka dago.

– Nafarroako Parlamentuak errefusatzan du Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege proposamena, zeren eta hezkuntza birzentralizatzeko ahalgin bat baita eta, horrenbestez, Nafarroak esparru horretan duen eskumenaren aurkako eraso. Gure ustez, gure errealitatearen eta beharizanen analisiak izan behar du hezkuntza sistemaren hobekuntzarako abiapuntua, eta erreforma honek gure hizkuntza- eta kultura-aberastasuna kontuan ez hartzeaz gainera, hura deuseztatu nahi du.

– Nafarroako Parlamentuak babesa erakusten die murgiltze-eredu linguistikoei –zeinak deuseztatu nahi baititu Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege proposamenak–, uste baitu bitartekorik eraginkorra direla hizkuntza “gutxituak” indartzeko eta, hartara, Erregioetako edo eremu urriko hizkuntzen Europako ituna dela-eta Espainiako Estatuak hartutako konpromisoak bermatzeko.”

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 48. urteurrenaren ospakizuna dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Giza Eskubideen Adierazpenaren onespena garrantzi moral eta politiko handiko urrats bat izan zen, zalantzarik gabe pertsona guztien ondasuna diren duintasuna, askatasuna, berdintasuna eta justizia aitortzeko.

Urteurren honetarako Nazio Batuek aukeratu duten gaia (pertsona guztiek –emakumeak, haurrak, gutxiengoetako kideak, ezgaituak, indigenak, behartsuak eta baztertuak– eskubidea dutela beren ahotsa bizitza publikoan entzunarazteko eta erabaki politikoak hartzeko prozesuan kontuan hartuak izateko) bereziki garrantzitsua da ordezkari-tza-ganbera honen esparruan; izan ere, lege-biltzar honek konpromisoa hartzen du onesten diren erabakietan pertsona guztiak kontuan izateko.

Krisi egoerak arriskuan jar ditzake gure gizartean erdietsitako aurrerapenak, zeinek bermatzen baitzuten herritar guztiek berdintasun baldintzetan aurrerapen horietaz baliatu ahal izatea, eta, horrenbestez, ordezkari politikoen betebeharra da lortzea politika izan dadila gizarteengan eragina duten erabakiak hartzeko esparrua, ongizate, berdintasun eta askatasun maila handiagoak lortze aldera.

Gaur egungo egoera ekonomikoak ez du aitzakia izan behar batzuen eta besteen eskubideak aurrez aurre jartzeko, ez eta hegoaldeko milioika herritar abandonatzeko ere. Giza eskubideak berterenezinak dira, eta erabaki politikoetarako edozein irizpideren atal bat izan behar dute”

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak baieztatzen baitu mobilizazioa gobernuen politikak baldintzatzeko tresna baliodun eta beharrezkoa dela.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak baieztatzen du mobilizazioa tresna baliodun eta beharrezkoa dela gobernuen –kasu honetan, Nafarroako Gobernua- ren– politikak baldintzatzeko.

Nafarroako Parlamentuak babesa erakusten die osasun publikoaren aldeko eta osasun-erreformarako egungo proiektuaren aurkako mobilizazio sozial eta sindikal guztiei.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

**Galdera, Tuterako Laneko Arbitraje eta Bateragarritasun Bulegoa berri-
rekitzeari buruzkoa.****BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Laneko Arbitraje eta Bateragarritasun Bulegoa berrirekitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Tuterako Laneko Arbitraje eta Bateragarritasun Bulegoa berriro irekitzeko? Hala baldin bada, noiz irekiko du bulegoa?

Iruñean, 2012ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, gazteek enplegu egonkor eta kalitatezkoa eskura dezaten errazteko Nafarroako Gobernuak egiten ditueni buruzkoa.**BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, gazteek enplegu egonkor eta kalitatezkoa eskura dezaten errazteko Nafarroako Gobernuak egiten ditueni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernua zer neurri ari da ezartzen gazteei errazte aldera gure lurraldean enplegu egonkor eta kalitatezko bat lortzea?

Iruñean, 2012ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, gazteek etxebizitza duin bat eta neurrizko prezioan eskura dezaten errazteko Nafarroako Gobernuak hartu dituen neurriei buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, gazteek etxebizitza duin bat eta neurrizko prezioan eskura dezaten errazteko Nafarroako Gobernuak hartu dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernua zer neurri ari da ezartzen gazte nafarrei errazte aldera etxebizitza duin bat, neurrizko prezioan, eskuratzea?

Iruñean, 2012ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, urriaren 19ko eta 20ko euriteek kaltetutako udalei eta bizilagunei eta eskura ditzaketen laguntzen xehetasunei buruzkoa.

KOLDO AMEZKETA DÍAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Amezketa Díaz jaunak aurkeztutako galdera, urriaren 19ko eta 20ko euriteek kaltetutako udalei eta bizilagunei eta eskura ditzaketen laguntzen xehetasunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Amezketa Díazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Iragan urriaren 19an eta 20an, eurite handiak izan ziren Nafarroa iparraldean, uholdeak eta kalte handiak eragin zituztenak Nafarroako zenbait herritan. Ondorioz, zenbait ekimen abiarazi dira kaltea konpontzeko eta beharrezkoak diren laguntzak emateko ukitutako herritarrei eta toki entitateei. Iragandako denbora gorabehera, kexa ugari dago premia biziko elementuetan egindako kalteak konpondu ez izanari buruz.

Gisa horretako gertakari eta hondamendiei berehalako konponbide bat emateko tresnak eduki ahal izateko dago, hain zuzen ere, 11/2009 Foru Legea, urriaren 30ekoa, Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholdeen, haizete indartsuen eta beste fenomeno natural batzuen ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsoneri laguntza eta babesa emateari buruzkoa.

Lege horrek, izaera iraunkorrekoa eta indarraldi mugagabekoa baita, ondokoa xedatzen du 2. artikuluan: “Une bakoitzeko Nafarroako gobernua-ren departamentu eskudunak emandako kasuan kasuko foru aginduaren bidez, kaltetutako udalerrien eta biztanleen zerrenda eginen da, bai eta horiek jaso ahalko dituzten laguntzen ere. Foru agindua egiten den lehendabiziko Gobernu Kontseiluan berretsiko da”.

3. artikuluan zehazten denez, “aurreko artikuluan aipatu den foru agindua emanen da hondamendia gertatu eta hilabeteko epean, eta bertan jasoko dira, halaber, foru lege honetan aurreikusitako laguntzen eta/edo kalte-ordainen eskaerak aurkezteko epeak, betekizunak eta baldintzak”.

7. artikulua “ekipamendu eta azpiegitura publikoetan eginiko kalteen konpentsazioari” buruzkoa da, eta hauxe dio: “kaltetutako toki entitateek lehentasuna izanen dute dagozkien laguntzak jasotzerakoan, kaltetutako elementuak berreraiki edo konpontzeko, lehen zituzten ezaugarrien arabera, eta beharrezkoak diren hobekuntzak egiteko arrazoi berak direla-eta berriz kaltetuak ez izateko. Lehentasun hori departamentu eskudunak emandako foru agindu bidez ezarriko da”.

Ikusita zenbat denbora igaro den, eta parlamentari naizen honek ezin izan dudanez argitaratuta aurkitu foru lege horretako 2., 3. eta 7. artikuluetan ezarritako foru agindua, ondoko galdera egiten diot Nafarroako Gobernuari:

- Zer herri eta bizilagun kaltetu zituzten iragan urriaren 19ko eta 20ko euriteek azaroaren 2ko 1505/2012 Errege Dekretuan hondamen eremu deklaratuak? Zer laguntza eska dezakete, 11/2009 Foru Legean xedatutakoa betez gero Gobernu Kontseiluak onetsi behar izan den foru aginduaren arabera?

Iruñean, 2012ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: Koldo Amezketa Díaz

Galdera, jakitekoa nola gauzatzen den oinarritzko osasun laguntzako talde medikoarekiko eta erizaintza-taldearekiko komunikazioa telefono-estaldurarik ez duen itzalguneren batean daudenean.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa nola gauzatzen den oinarritzko osasun laguntzako talde medikoarekiko eta erizaintza-taldearekiko komunikazioa telefono-estaldurarik ez duen itzalguneren batean daudenean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordea izapidetzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak kasuko batzordean ahoz erantzuteko:

Ikusita bilagailuak erretiratu direla eta Oinarritzko Laguntzako larrialdiak artatzeko aukitze-sistemen ordez geokopakapeneko mugikorak ezarri direla, eta kontuan hartuta badirela estaldurarik gabeko eremuak, ondokoa jakin nahi dugu:

Talde medikoa edo erizain-taldea telefono-estaldurarik gabeko itzalgune batean dagoenean, nola konponduko da komunikazio-arazoa?

Iruñean, 2012ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, jakitekoa zergatik ez zen interpretatu Espainiako ereserkia Nafarroaren Eguna ospatzeko ekitaldietan.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa zergatik ez zen interpretatu Espainiako ereserkia Nafarroaren Eguna ospatzeko ekitaldietan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xeda-

tuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak datorren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak, iragan azaroaren 23an egindako Osoko Bilkuran, erabaki bat onetsi zuen gehiengo; haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatu zuen Nafarroako Foru Komunitatean egiten diren ekitaldi solemneetan Espainiako ereserkia ere jo dadin, Nafarroako ereserkiak gain. Nafarroaren Egunaren kariatara abenduaren 3an egindako ekitaldi batean ere ez zen bete Foru Legebiltzarren nahia. Horrenbestez, hauxe jakin nahi dut:

Foru Komunitateko ekitaldirik solemneenak izanik, zergatik ez zen jo Espainiako ereserkia Nafarroaren Eguna ospatze aldera abenduaren 3an egindako ekitaldietan? Nafarroako Gobernuaren hurrengo zer ekitalditan beteko da Parlamentuaren agindu hori?

Iruñean, 2012ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, jakitekoa zergatik Hezkuntza Departamentuak Hezkuntza Ikuskaritza Zerbitzuko lanpostu hutsak bete dituen berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioei men egin gabe.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa zergatik Hezkuntza Departamentuak Hezkuntza Ikuskaritza Zerbitzuko lanpostu hutsak bete dituen berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioei men egin gabe.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak zergatik bete ditu Hezkuntza Ikuskaritza Zerbitzuko lanpostu hutsak berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioei men egin gabe?

Iruñean, 2012ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, C.A. Osasunak Nafarroako Ogasunarekin duen zorra ordaintze-ari buruzkoa.

BIKENDI BAREA AIESTARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, C.A. Osasunak Nafarroako Ogasunarekin duen zorra ordaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranek, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko organo eskudunari, idatziz erantzun diezaion:

- Nafarroako Ogasunak akordioaren bat itxi al du Club Atlético Osasunarekin, talde horrek Ogasunarekin daukan zorra ordaintzeari dagokionez?

- Hala baldin bada, eta galdera Datuen babesari buruzko Legeak ezartzen dituen mugetara zedarriz, zein da akordio horren edukia?

Iruñean, 2012ko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, San Juan de Dios Ospitaleko obrak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak emandako abalari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, San Juan de Dios Ospitaleko obrak finantzatzeko Nafarroako Gobernuak emandako abalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion.

Orain dela gutxi, ospitalea handitzeko obrak egin ahal izateko behar den finantzaketaren zati handi baten abala eman dio Nafarroako Gobernuak San Juan de Dios Ospitaleari. Abala 14 milioi eurokoa da. San Juan de Dios Ospitalean kirurgia-jarduera % 50 jaitsiko dela iragarri ostean, ondo-koa jakin nahi dut:

Zer espektatiba zituen zentroak, jarduerari dagokionez, obra horiek egiteko? Ba al zuten Nafarroako Gobernuaren konpromiso espresen bat?

Zer berme ditu Nafarroako Gobernuak obraren zati baten abala eman izateko?

Iruñean, 2012ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, San Juan de Dios Ospitaleko jarduera kirurgikoa gutxitzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, San Juan de Dios Ospitaleko jarduera kirurgikoa gutxitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezazkion:

San Juan de Dios Ospitalean kirurgia-jarduera jaitsiko dela iragarri ostean, ondokoa jakin nahi dut:

1. Zeintzuk dira San Juan de Dios Ospitalean eginen ez diren operazio-motak? Zenbat, espezialitate bakoitzeko?

2. Non eginen da orain arte San Juan de Dios Ospitalean egin den kirurgia-jarduera? Aurreikuspenen arabera, zein izanen da jarduera horri aurre egin ahal izateko baliabide-igoera?

3. Abenduaren 10a baino geroago egiteko aurreikusitako zenbat operazio utzi dira bertan behera? Esleitu al zaie jadanik tokia eta eguna?

Iruñean, 2012ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, jakitekoa zer jarduketa egin dituen eta eginen dituen Nafarroako Gobernuak konpontze aldera Pirinio aldean eta Zangozan izandako uholdeen ondorioz hainbat azpiegituretan gertatutako kalteak.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer jarduketa egin dituen eta eginen dituen Nafarroako Gobernuak konpontze aldera Pirinio aldean eta Zangozan izandako

uholdeen ondorioz hainbat azpiegituretan gertatutako kalteak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txema Mauleónek ondoko galdera egin du, Toki Administrazioako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan urrian Pirinio aldean eta Zangozan izandako eurite handien eta uholdeen ondorioz hainbat azpiegituretan gertatutako kalte larriak ikusita, ondokoa jakin nahi dut:

– Nafarroako Gobernuak zer jarduketa egin ditu eta eginen ditu eta zer laguntza eman ditu eta emanen ditu, gertatutako kalteak ordaintzeko?

Nafarroako Gobernuak noiz eta nola emanen dizkie toki entitateei iragan urriaren 26an haiekin egindako bileran hitzemandako laguntzak?

Iruñean, 2012ko abenduaren 10ean

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak aurreikusita al daukan berrordainketa-formuletan eta zerbitzuen pribatizazioan sakontzea.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak aurreikusita al daukan berrordainketa-formuletan eta zerbitzuen pribatizazioan sakontzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den abenduaren 20ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Nafarroako Gobernuak aurreikusita al dauka berrordainketa-formuletan eta zerbitzuen pribatizazioan sakontzea?

Iruñean, 2012ko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, “Abiadura handiko trenbidearen Nafarroako korridorea eraikitzea” kontusailaren kargura Osasun Departamentuko zenbait kontusail handitzearen erabakiari buruzkoa.

JUAN CARLOS LONGÁS GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Carlos Longás García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, “Abiadura handiko trenbidearen Nafarroako korridorea eraikitzea” kontusailaren kargura Osasun Departamentuko zenbait kontusail handitzearen erabakiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan Carlos Longás García, Legebiltza-

rreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, abenduaren 20ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak ahoz erantzun dezan:

2012ko urriaren 10ean, Osasun Departamentuko zenbait kontusail handitzea erabaki zuen Nafarroako Gobernuak, 18.604.000 euro egiten dutenak. Igoera hori finantzatzeko da 610004-61310-6019-453102 “Abiadura handiko trenbidearen Nafarroako korridorea eraikitzea” kontusailaren kargura.

Zeri zor zaio finantzatzeko kontusail hori aukeratu izana? Horrek esan nahi al du abiadura handiko trenbidearen Nafarroako korridoreko obrak ez direla finantzatzen Gehiegizko Defizit Prozeduraren barruan Kontabilitate Nazionalako terminoetan egotzi ezin den zorraren bidez?

Iruñean, 2012ko abenduaren 8an

Foru parlamentaria: Juan Carlos Longás García

Galdera, jakitekoa zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak larrialdikoa ez den osasun-garraioaren doakotasuna ziurtatzeko.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak larrialdikoa ez den osasun-garraioaren doakotasuna ziurtatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

• Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko ditu larrialdikoa ez den osasun-garraioaren doakotasuna ziurtatzeko?

Iruñean, 2012ko abenduaren 17an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

3/2012 Legegintzako Foru Dekretua, azaroaren 21ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 3/2012 Legegintzako Foru Dekretua, azaroaren 21ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 162. artikuluan xedatutakoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea ezagutzen duela 3/2012 Legegintzako Foru Dekretua, azaroaren 21ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

3/2012 Legegintzako Foru Dekretua, azaroaren 21ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikulua xedatzen duenez, Nafarroako Foru Komunitateak, balio erantsiaren gaineko zergaren esparruan bere tributu-ahalmena erabiliz, Estatuan unean unean indarra duten oinarritzko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berak aplikatu behar ditu;

hala ere, aitorpena eta diru-sarrerak egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu.

Bestetik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 54.1 artikuluan, Nafarroako Gobernuaren araugintzarako ahalmena erregulatzean ezartzen duenez, tributu-araubide erkidearen aldaketa batek behartzen badu, Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, Estatuan indarra duten arau funtsezko eta formazko berberak Foru Komunitatean aplikatzera, Nafarroako Gobernuak tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak eman ditzake, Nafarroako Parlamentuak eskuordeturik. Aipatu 14/2004 Foru Legearen 54.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuaren xedapenei, aipatu legegintzarako eskuordetzaren ondorio direnean, "tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu" izena emanen zaie.

Urriaren 29ko 7/2012 Legeak, tributu eta aurrekontu arloko araudia aldatzeari eta iruzurra prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko jarduketak indartzeko araudi finantzarioa egokitzeari buruzkoak, zenbait aldaketa erantsi ditu zerga batzuetan iruzurrezko jokabideak galaraztearren; besteak beste, balio erantsiaren gaineko zergan. Horien helburua, batez ere, ondasun higiezinaren entregak izan dira eta, bestetik, konkurtso-deklarazioa izan duten egoerak.

Horrela, lehendabizi, subjektu pasiboaren inbertsioko beste bi kasu ezarri dira ondasun higiezinaren entregetetarako. Alde batetik, salbuespenari uko egiten zaionean eta, bestetik, ondasun higiezinak haien gainean eratutako bermea exekutatzeko entregatzen direnean; kasu hori berariaz zabaltzen da higiezina ordainean ematen denean eta eskuratzailleak bere egiten duenean bermatutako zorra azkentzeko betebeharra. Horrela, subjektu pasiboaren inbertsioren bidez, zergaren kuotak ordaintzen ez diren kasuetan Ogasun Publikoak jasaten duen kaltea saihestu gogo

da eta, ondoren, luzapena eskatzen da, edo entitate eskualdatzailearen konkurtsoa deklaritzen.

Bigarrenik, tributudunaren konkurtso egoerak zergaren tratamendu berezia eskatzen du, haren kudeaketa errazteko eta neutraltasuna alda ez dadin.

Konkurtso-deklarazioaren autoa zergaren likidazio aldian ematen denean, beharrezkoa da bereiztea kredituak konkurtsokoak ote diren edo masaren kontrakoak; izan ere, konkurtso-deklarazioaren aurreko zergapeko egitateengatik BEZaren kredituak konkurtsozkoztat jo behar dira. Gaur egungo erregulazioan likidazio aitortpena bakarrenez zergaldi bakoitzean, bi likidazio aitortpen aurkeztu beharra ezarri da legegintzako foru dekretu honen seigarren idatz-zatian: bata konkurtso-deklarazioaren aurreko zergapeko egitateengatik eta, bestea, hurrengoengatik. Kuotak deklarazio-autoaren aurretik jasan badira, zer zergalditan jasan izan diren kuota horiek, haietara mugatuko da kenkarirako eskubidea.

Jasanarazitako kuotak zuzentzeko beste kasu bat erantsi da zortzigarren idatz-zatian, kargatutako eragiketa ondorioz gabe gelditzen denerako konkurtso-berrintegrazioko ekintza bat baliatzearen ondorioz edo konkurtsoaren barreneko beste aurkaratze ekintza batzuen ondorioz. Kasu horietan, zer zergalditan egin zen eragiketaren aitortpena, hari dagokion likidazio-aitortpenean egiten du zuzenketa subjektu pasiboak. Eskuratzailerak ere konkurtsoan bada, kenkaria baliatu zen zergaldiari dagokion likidazio aitortpenenean gutxituko ditu kenkariak. Neurri horien bidez, eskualdatzailearen nahiz eskuratzaileraren konkurtso-deklarazioak zergaren neutraltasuna ahuldu ez dezan galarazi nahi da.

Azkenik, tributuen aurkako beste arau-hauste bat erregulatu da, baita dagokion zehapen araubidea ere, inportazioekin parekatutako zenbait eragiketa behar bezala ez aitortzeagatik.

Adierazitakoarekin bat, beharrezkoa da Foru Komunitateak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeari dagozkion aginduak balio erantsiaren gaineko zergari buruzko araudiak araubide erkidean izan duen aldaketara egokitzea.

Aipatu legegintzarako eskuordetza baliatuz, tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu bidez ematen da 19/1992 Foru Legea aldatzeko behar den araua, 14/2004 Foru Legearen aipatu 54.1 artikuluari jarraituz.

Foru arauak eta Estatuan parekoa denak indarra hartu eta eragina batera izan dezaten, berariaz

xedatu da 19/1992 Foru Legean egindako aldaketek zer egunetatik aurrera izanen duten eragina; bestetik, 14/2004 Foru Legearen 54.4 artikuluen arabera, atzerako eragina izaten ahalko dute, harmonizazioaren xedeko araubide erkidegokoekin batera indarra har dezaten.

Horiek horrela, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2012ko azaroaren 21ean egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra.- Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen agindu hauek aldatu dira, eta ondoren azaldu bezala gelditu:

Bat.- 4.3 artikulua.

“3. Zerga honen menpeko eragiketak ez dira ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren “kostu bidezko ondare eskualdaketa” kontzeptuaren menpe egonen.

Aurreko lerroaldean xedatutakotik salbu daude ondasun higiezinaren entrega eta errentamenduak, baita horien gaineko erabilte eta lupertze eskubide errealean eraketa edo eskualdaketa ere, zergatik salbu daudenean, non ez den subjektu pasiboak uko egin diola salbuespenari 17.2 artikuluan jasotako inguruabar eta baldintzetan.”

Bi.- 17.1.14. k) artikulua.

“k) Akzioei, sozietateetako partaidetzei, obligazioei eta zenbaki honen aurreko letretan aipatutako gainerako baloreei buruzko zerbitzu eta eragiketak, gordailua eta kudeaketa kenduta, salbuespen hauekin:

a) Salgaiak ordezkatzeko dituztenak.

b) Ondasun higiezin baten edo haren zati baten jabetza, erabilera edo luperketa eskusiboa izatez edo zuzenbidez ziurtatzen dutenak, akzioak edo sozietateetako partaidetzak kenduta.

c) Bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzeko onartzen ez diren baloreak, haiek bigarren mailako merkatuan eskualdatuta ihes egin gogo bazaio balore horiek ordezkatzeko dituzten entitateen jabetzako higiezinaren eskualdaketa dagokion zerga ordaintzeari, Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 108. artikuluan aipatzen den moduan.”

Hiru.- 28.3 artikulua, bigarren leerroaldea.

“Konkurtoari buruzko Legearen 176.1 artikuluko 1., 4. eta 5. idatz-zatietan adierazitako arrazoi-enganatik konkurtoa amaitzea erabakitzen denean bakarrik, zerga-oinarria aldatu duen hartzekodunak berriro gorantz aldatu beharko du, bidezko kuota jasanarazten duen faktura zuzentzailea erregelamenduz zehaztuko den epean jaulkita.”

Lau.- 31.1.2. e) artikulua.

“e) Ondasun higiezinaren entrega hauek direnean:

a') Konkurtso auzi baten ondorioz egindako entregak.

b') 17.1 artikuluko 10. eta 12. idatz-zatietan aipatzen diren entrega salbuetsiak, subjektu pasiboak salbuespenari uko egin badio.

c') Ondasun higiezinaren gainean eratutako bermea exekutatu egindako entregak; orobat, bermea exekutatu ez jotzen da higiezina eskualdatzen denean zor bermatua erabat edo hein batean azkentzearen truke, edo aipatu zorra eskuratzailerak azkendu behar diren truke.”

Bost.- 31.1.2. artikulua, f) letra gehitzea.

“f) Obra exekuzioak direnean, materiala jarrita edo ez, baita haiek egiteko langile lagapenak ere, lurra urbanizatzeko edo eraikinak altxatu edo zaharberritzeko helburua duten sustatzailearen eta kontratistaren arteko zuzeneko kontratuen ondorioz.

Aipatu baldintzetan, eragiketen hartzaileak kontratista nagusia edo beste azpikontratista batzuk direnean ere aplikatuko da aurreko leerroaldean ezarritakoa.”

Sei.- 35.5. artikulua.

“5. Kuotak zuzentzearen ondorioz hasieran jasanarazitakoak igotzen badira eta aurretik errekerimendurik izan ez bada, subjektu pasiboak likidazio aitortu zuzentzailea aurkeztu beharko du, eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 52.3 artikuluan aurreikusitako errekarguak eta dagozkion berandutza-interesak aplikatuko zaizkio.

Aurreko leerroaldean xedatutakoa gorabehera, zuzenketaren funtsa foru lege honen 28. artikuluan zerga-oinarria aldatzeko ezarritako arrazoiak direnean edo zuzenbideko errakuntza baten ondorioz bada, subjektu pasiboak dagozkion aldean sartzen ahalko du zuzenketa egin behar duen zergaldiko likidazio aitortuaren.

Zuzenketa hasieran jasanarazitako kuotak gutxitzea dakarrenean, subjektu pasiboak bi bide hauetako bat aukeratzen ahalko du:

a) Bidegabeko diru-sarrerak itzultzeko prozedura hastea Zerga Administrazioan.

b) Tributu egoera erregularizatzea zuzenketa egin behar deneko zergaldiari dagozkion likidazio aitortuaren, edo hurrengoetan, urtebete arte, zuzenketa egin behar izan zen unetik hasita. Kasu horretan, subjektu pasiboa behartua egonen da eragiketaren hartzaileari behar baino gehiago jasanarazitako kuoten zenbatekoa ordaintzera.

Konkurto-berrintegrazioeko ekintza baten edo konkurtoaren barreneko beste aurkaratze ekintza batzuen ondorioz, kargatutako eragiketak ondorioz ez badu, sorrarazitako kuotak zer zergalditan aitortu ziren, haiei dagozkien likidazio aitortuaren hasieran jasanarazitako kuotak zuzendu beharko ditu subjektu pasiboak.”

Zazpi.- 45.3 eta 5 artikulua.

“3. Titularrak kuota kengarriak jasan dituen likidazio aldiko likidazio aitortuaren edo hurrengoetan bakarrik erabiltzen ahalko da kenkarirako eskubidea, baldin eta ez bada lau urteko epea iragan, aipatu eskubidea sortu zenetik.

Hala ere, konkurto-deklarazioaren kasuan, haren aurretik jasandako kuoten kenkarirako eskubidea erabiltzekotan, jasan diren likidazio aldiko likidazio aitortuaren beharko da baliatu.

Aurreko leerroaldean aipatu kuota kengarriak likidazio aitortuaren horietan sartu ez badira eta, betiere, lau urteko epea iragan ez bada kuota horien kenkarirako eskubidea sortu zenetik, konkurtopekoak edo, Konkurtsoari buruzko Legearen 86.3 artikuluan aurreikusitako kasuetan, konkurto-administrazioak, jasan ziren aldiko likidazio aitortuaren zuzenketa eginez kentzen ahalko ditu.

Administrazioaren errekerimendua edo ikuska-pena izan denean, jasandako kuotak dagozkien likidazioetan izanen dira kengarri, baina behar bezala kontabilizatuta egon beharko dute zerga honetarako erregelamenduz ezarritako erregistro liburuetan; aldiz, kontabilizatu gabeko kuotak haien kontabilizazioari dagozkion aldiko likidazio aitortuaren edo hurrengoetan izanen dira kengarri. Betiere, batzuk eta besteak lehen leerroaldean aipatu epea iragan ez bada bakarrik kentzen ahalko dira.

5.1.e) artikuluan aipatu noizbehinkako salmen-ten kasuan, garraibide berrien entrega egiten den aldiko aitortuaren bakarrik erabiltzen ahalko da kenkarirako eskubidea.”

“5. Bidezko kenkarien zenbatekoa likidazioaldi berean sorrarazitako kuoten zenbatekoa baino handiagoa denean, gehiegizko aldea hurrengo likidazio aitortpenetan konpentsatzen ahalko da, baldin eta ez badira lau urte iragan gehiegizko alde hori sortu zeneko likidazio aitortpena aurkeztu zenetik.

Dena dela, subjektu pasiboak bere aldeko saldoa itzultzea aukeratzen ahalko du, titulu honen II. kapituluaren xedatutakoaren arabera bidezkoa denean, eta kasu horretan ezin izanen du konpentsaziorik egin hurrengo likidazio aitortpenetan, zein den ere iragan den denbora, itzulketa hori gauzatu arte.

Konkurtsodeklarazioaren aurreko zergapeko egitatei buruzko likidazio aitortpenean, erregelamenduz aurreikusita baitago, aitortpen horren aurreko likidazio aldietan konpentsatu beharreko saldo metatu guztiak aplikatu beharko dira.”

Zortzi.- 60.2.2. artikulua.

“2. Zuzenketaren ondorioz hasieran kendutako kuoten zenbatekoa gutxitzen bada, subjektu pasiboak likidazio aitortpen zuzentzailea aurkeztu beharko du, eta Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren 52.3 artikuluan aurreikusitako errekarquak eta dagozkion berandutza-interesak aplikatuko zaizkio.

Foru lege honen 28.3 artikuluan aurreikusitako kasuan, jasandako kuoten kenkarirako eskubidea zer alditan erabili zen, haren likidazio aitortpenean egin beharko da zuzenketa, eta ez da zilegi errekarquak eta berandutza-interesak aplikatzea.

Konkurtsoberrintegrazioeko ekintza edo konkurtsorenen barreneko beste aurkaratze ekintza batzuk erabiltzearen ondorioz, kargatutako eragiketa eraginik gabe gelditzen den kasuetan, hasierako eskuratzaila edo eroslea ere konkurtsorean bada, hasieran kendutako kuoten zuzenketa egin beharko du jasandako kuoten kenkarirako eskubidea erabili zeneko likidazio aitortpenean, eta ez da bidezkoa errekarquak eta berandutza-interesak aplikatzea.

Hala ere, zuzenketaren sorburua zuzenbidezko errakuntza bat edo 28. artikuluko gainontzeko arrazoietakoa bada, noiz hartzen duen subjektu pasiboak kenkarirako eskubidea frogatzen duen dokumentua, hasieran jasandako kuotak zuzentzen dituena, hari dagozkion zergaldiko likidazio aitortpenean egin beharko da zuzenketa.”

Bederatzi.- 115.2. artikulua, 5. idatz-zatia gehitzea.

“5. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araubide Erkidea erregulatzen duen Legearen 19.5 artikuluan araututako eragiketei buruzko likidazio aitortpenak ez aurkeztea edo behar ez bezala nahiz osatu gabe aurkeztea.”

Hamar.- 116.1. artikulua, 5. idatz-zatia gehitzea.

“5. 2. zenbakiko 5. idatz-zatian ezarritakoak, diru-isun proportzionala jarriz, likidazio aitortpenetan azaldu gabe edo behar ez bezala nahiz osatu gabe utzitako eragiketei dagozkien kuota sorrarazien %10ekoa. Dena dela, aduanaz bestelako gordailu araubidea abandonatzeari buruzko likidazio aitortpenak direnean, diru-isun proportzionala jarriko da, azaldu gabe edo behar ez bezala nahiz osatu gabe utzitako eragiketei dagozkien kuota sorrarazien %10ekoa; betiere, likidazio aitortpenaren deklaraturako kuoten guztirakoak aldi horretan sorrarazitakoak baino txikiagoa izan beharko du.”

Hamaika.- Bigarren xedapen gehigarria.

“Bigarren xedapen gehigarria.- Nahitaezko betearazpeneko prozedura administratibo eta judizialak.

Nahitaezko betearazpeneko prozedura administratibo eta judizialean, zerga honen ondorioetarako enpresaburuak edo profesionalak direnek honako hau egiteko ahalmena dute, subjektu pasiboaren izenean eta haren kontura, prozedura horietan izaten diren eta zerga hari loturik dauden ondasunen entreegi eta zerbitzuen prestazioei dagokienez: eragiketa jasotzen duen eta zergaren kuota jasanarazten duen faktura egiteko, dagokion likidazio aitortpena aurkezteko eta ateratzen den zergaren zenbatekoa ordaintzeko.

Erregelamendu bidez zehaztuko dira zer baldintza eta beharkizun behar diren ahalmen horiek gauzatzeko.

Xedapen honetan ezarritakoa ez da aplikatuko baldin eta ondasun higiezinaren entreegiaren subjektu pasiboa bada haien hartzailea, 31.1.2.e) artikuluan xedatutakoarekin bat.”

Azken xedapen bakarra.- Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2012ko urriaren 31tik aurrera izanen ditu ondorioak.

